Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren Ofizio Papera

M-80

Papel de Oficio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco

# JUZGADO DE LO SOCIAL Nº 4 DE DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

# DONOSTIAKO LAN ARLOKO 4 ZK.KO EPAITEGIA

TERESA DE CALCUTA-ATOTXA-JUST. JAUREGIA 1 4ª planta - C.P./PK: 20012
TEL.: 943-000774
FAX: 943-004357
N.I.G. P.V. / IZO EAE: 20.05.4-13/006097
N.I.G. CGPJ / IZO BJKN: 20.069.44.4-2013/0006097

13 FEB 2014

SARRERA 114

Modif.cond.sust. / Funtsezko baldintzak aldatzea 1/2014-

SOBRE / GAIA: MODIFICACIÓN CONDICIONES LABORALES
DEMANDANTE / DEMANDATZAILEA:
DEMANDADO/A / DEMANDATUA:

D./Dña. MARIA JESUS STAMPA CASTILLO SECRETARIO DEL JUZGADO DE LO SOCIAL Nº 4 DE DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN DE DONOSTIA / SAN SEBASTIAN;
DOY FE Y CERTIFICO: Que en los presentes autos constan los particulares siguientes:

Nik, MARIA JESUS STAMPA CASTILLO DONOSTIA / SAN SEBASTIAN(E)KO DONOSTIAKO LAN ARLOKO 4 ZK.KO EPAITEGIA(E)KO IDAZKARIAK,
FEDE EMAN ETA ZIURTATZEN DUT, auto hauetan hurrengoa dagoela jasota:

## 14/31 ZENBAKIDUN EPAIA

Donostian, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hogeita hamaikan.

**RIKARDO BANDRES ERMUA** jaunak, Gipuzkoako Lan Arloko Lau Zenbakiko Epaitegiko Magistratu-epaileak, lan baldintzen funtsezko aldaketari buruz 14/1-4 zenbakipean epaitegi honetan bideratu diren autoak entzun eta ikusi ditu; prozesuan jardun dira, alde batetik jauna, abokatuak lagunduta, eta bestetik gizarte graduatua, enpresa ordezkatuz, eta abokatua,

## PROZESUAREN AURREKOAK

LEHENENGOA.- 2.014ko urtarrilaren 2an, jaunak enpresaren aurka demanda bat jarri zuen epaitegi honetan, bertan jaunak eskatu zuen bere lan baldintzetan 2.014ko urtarrilaren 8an ' enpresak egindako aldaketa deuseza dela adieraz dadila, eta eskaera hori onartzen ez bada aldaketa hori arrazoirik gabea dela adieraz dadila, aldaketa horren ondorioz Donostiako (Gipuzkoan) lantokitik lan egitetik, Gasteizeko (Araban) lantokira lan egitera pasa zen; ' enpresaren ordezkaria

demanda honen aurka azaldu zen, bere iritziz jaunak salatzen duen lan baldintzen aldaketa ez delako egon, egin dena soilik lantoki aldaketa izan da, Donostiatik Gasteizera, Donostiako lanzentruan zituen lan-baldintza guztiak mantenduta.

<u>BIGARRENA</u>.- Demanda aurkeztu ondoren, 2.014ko urtarrilaren 3ko dekretu baten bidez demanda izapidetzeko onartu zen, eta ahozko ikustaldia 2.014ko urtarrilaren 23an egin zen, bertan, parte guztiei entzun zitzaien, gero parteek proposatutako eta onartutako frogak egin ondoren, beren behin betiko ondorioak azaldu zituzten.

<u>HIRUGARRENA</u>.- Prozesu hau izapidetzean legeak agindutakoa bete da.

## FROGATUTAKO EGITATEAK

<u>LEHENENGOA</u>.- jaunak enpresarentzat lan egiten du 1.985eko urriaren 21etik, zerbitzu arduradun lanbide-mailarekin, eta hilean 3.735,76 euroko soldatarekin, aparteko ordainsarien hainbanakoak barne.

<u>BIGARRENA</u>.- jaunak enpresak dituen lanzentru ezberdinetan lan egin du, baina 2.013ko martxoaren 1etik Donostian dagoen lanzentruan lan egiten zuen, eta Donostian dauka, halaber, bere sendiaren helbidea.

<u>HIRUGARRENA</u>.- enpresak Eusko Jaurlaritzako zerbitzu informatikoen mantentze lanak egiten ditu, eta honetaz gain ordenagailuen erabiltzeak artatzen ditu, eta badauka egoitza nagusi bat Araban, eta bi lurralde ordezkaritza, bata Gipuzkoan eta bestea Bizkaian.

<u>LAUGARRENA</u>.- Azken urte hauetan, enpresak Eusko Jaurlaritzako zerbitzu informatikoen zerbitzari guztiak Arabako egoitza nagusian metatu ditu, eta egoitza nagusi horretatik kanpo soilik bi zerbitzari geratu dira, bata Bizkaian, Bilboko Kale Nagusiko 85. zenbakian, eta bestea Gipuzkoan, Donostiako Andia kalean.

Bi zerbitzari hauek "Zuzenean" izeneko zerbitzuri atxkita daude, zerbitzu hori bi probintzietako teléfono-guneek erabiltzen dute, baina zerbitzari horietatik ez da inolako kudeaketarik egiten.

<u>BOSGARRENA</u>.- 2.013ko irailaren 30ean, enpresaren Zuzendaritzak eta jaunak bilera bat egin zuten, bilera horretan enpresaren Zuzendaritzak jaunari jakinarazi zion 2.014ko urtarrilaren 8tik aurrera Arabako lantokian lan egin behar zuela, Gasteizeko Mediterraneo hiribideko 14. zenbakian.

<u>SEIGARRENA</u>.- 2.013ko azaroaren 27an,

enpresak jaunari eskutitz bat eman zion, eskutitz horretan jakinarazi zion 2.014ko urtarrilaren 8tik aurrera enpresaren egoitza nagusian lan egin beharko zuela, hau da Gasteizeko Mediterraneo hiribideko 14. zenbakian, eta bi hilabeteko denboraldia ezarri zen, denboraldi horretan hiru egunetan Gasteizeko egoitza nagusian lan egin beharko zuen, eta asteko beste bi lan egunetan Donostiako lantokian, autobusez egindako garraio gastuak ordainduko zizkion eta bidaian emandako denbora, lanean emandako lan denboratzat hartuko zen.

Eskutitz horren kopia bat jardunetan erantsita dago, eta hemen errepikatutzat jotzen da.

ZAZPIGARRENA.- 2.013ko azaroaren 29an, enpresaren Zuzendaritzak eta enpresa-batzordeak bilera egin zuten, bilera horretan enpresaren Zuzendaritzak 'ko enpresa-batzordeari jakinarazi zion Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde ordezkaritzetan lan egiten zuten langileek 2.014ko urtarrilaren 8tik aurrera enpresaren egoitza nagusian lan egin beharko zutela, hau da Gasteizeko Mediterraneo hiribideko 14. zenbakian.

ZORTZIGARRENA.- 2.014ko urtarrilaren 8tik jaunak asteko hiru egunetan enpresaren egoitza nagusian lan egiten du, hau da Gasteizen, eta asteko beste bi egunetan Donostiako lantokian.

enpresak jaunari autobusezko bidaiaren zenbatekoa ordaintzen dio, eta bidaiaren denbora lan denboratzat jotzen du.

BEDERATZIGARRENA.- jauna ez da langileen ordezkari, eta gertaeren aurreko urtean ere ez da izan.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Eztabaidaren mamia.

Auzi jartzaileak eskatzen du bere lan baldintzetan 2.014ko urtarrilaren 8an enpresak egindako aldaketa deuseza dela adieraz dadila, eta eskaera hori onartzen ez bada aldaketa hori arrazoirik gabea dela adieraz dadila, lan baldintzen aldaketa horren ondorioz Donostiako (Gipuzkoan) lantokian lan egitetik, Gasteizeko (Araban) Mediterraneo hiribideko 14. zenbakian duen egoitza nagusian lan egitera pasa zen, bere iritziz lanpostu aldaketa hori salatzen duen lan baldintzen funtsezko aldaketa da.

enpresaren ordekaritza eskaera horren aurka azaltzen da, horretarako argudiatzen du auzi jartzaileak salatzen

duen lan baldintzen funtsezko aldaketa ez dela gertatu, lantoki-aldaketa besterik ez dela izan, auzi jartzaileak bere lanbide bizitzan zehar izan dituen beste lanleku aldaketa batzuen antzekoa, hau da lekualdaketa bat da, Donostiako lantokitik Gasteizeko egoitza nagusira, baina ez da auzi jartzaileak salatzen duen lan baldintzen funtsezko aldaketa.

BIGARRENA.- enpresak 2.014ko urtarrilaren 8an, auzi jartzaileari dagokionez hartu zuen neurriaren azterketa.

Eztabaidaren mamia finkatzeko, adierazi behar da enpresak 2.014ko urtarrilaren 8an hartu zuen neurria hau dela, auzi jartzaileak egiten zituen laneko eginbeharrak enpresaren egoitza nagusian egitea, Gasteizen, langilearen aintzintasuna, lanbide maila, soldata, lanaldia eta eginbeharrak mantenduta, gainera Donostia eta Gasteiz arteko autobusaren txartelaren zenbatekoa ordaintzen dio, eta Donostia-Gasteiz joan-etorriko bidaia egiteko erabili behar duen denbora lan-denboratzat hartzen dio, eta eztabaidatzen dena hau da, ea neurri hori lan baldintzen funtsezko aldaketa den edo lantoki batetik beste batera lekualdatzea den.

Hori da eztabaidaren mamia, auzi jartzaileak lan baldintzen funtsezko aldaketearen ekintza erabili du, hori azaltzen da demandaren hasieran, 2. orrian, eta enpresaren ordekaritzak argudiatzen du auzi jartzaileak salatzen duen lan baldintzen funtsezko aldaketa ez dela gertatu, soilik lantoki aldaketa gertatu dela, enpresaren beharren arabera, Donostiako lantokitik enpresaren egoitza nagusira Gasteizera, auzi jartzailek ondo ezagutzen du zer den lantoki aldaketa, enpresan lan egin duen denboran hainbat lantoki aldaketa izan baititu, eta auzi jartzaileak berak onartzen du hori demandaren bigarren egitatean.

Gai honi erantzuna emateko, kontuan izan behar da lan baldintzen funtsezko aldaketa eta geografi mugikortasuna gauza ezberdinak direla, eta Langileen Estatuak ezberdin arautzen ditu, izan ere, Langileen Estatutuko 40. artikuluak geografi mugikortasuna arautzen du eta 41. artikuluak lan baldintzen funtsezko aldaketa arautzen du, hala ere bi gai hauek bideratzeko prozedura berdina da, Gizarte Eskumeneko Legearen 138. artikuluak arautzen duena.

Epaitegi honen ustez, eztabaidatzen diren bi ekintzen arteko ezberdintasuna hau da, geografi mugikortasunaren ekintzak non galderari ematen dio erantzuna, eta lan baldintzen funtsezko aldaketaren ekintzak langileak zerbitzuak nola egin behar dituen galderari erantzuten dio, eta kasu honetan enpresak auzi jartzaileari 2.013ko azaroaren 27an eman zion eskutitzean, 19. eta 20. orrietan, jakinarazi ziona lantoki aldaketa da, Donostiako lantoki batetik Gasteizen dagoen lantoki batera pasa zelako, baina lantoki aldaketa horretatik aparte, auzi jartzaileak ez du inolako aldaketarik izan bere lan baldintzetan.

Horrela, auzi jartzaileak Gasteizeko lanzentruan egiten dituen eginbeharrak,

Donostian egiten zituen berdinak dira, ez du inolako aldaketarik antzintasunean, lanbide mailan edo soldatan, bere lanaldia mantentzen du, eta gainera Donostiatik Gasteizera joateko egin behar duen bidaiaren denbora, joatekoa nahiz itzultzekoa, lan denboratzat jotzen da, eta enpresak Donostia eta Gasteiz arteko bidaiaren autobusa txartelaren zenbatekoa ordaintzen dio.

Adierazitako guztia kontuan izanik, kasu honetan ez da inolako lan baldintzen funtsezko aldaketarik izan, lantoki aldaketa baizik, Donostiatik Gasteizera, eta auzi jartzaileak ez du lantoki aldaketa hori aurkaratzen, aurkaratzen duena gertatu ez den lan baldintzen funtsezko aldaketa, beraz demanda ezetsi behar da.

Aipatutako lege arauak ikusita, eta kasu honetan ezar daitezkeen beste denak kontuan izanik, hona hemen

## EPAITZA

Demanda ezesten dut, eta enpresa eta ıbsolbitzen ditut demandaren eskaeretatik.

Epai honen aurka ez dago helegiterik jartzerik.

## SENTENCIA Nº 31/14

En Donostia, a treinta y uno de Enero del dos mil catorce.

**D. RICARDO BANDRES ERMUA**, Magistrado Juez del Juzgado de lo Social número Cuatro de los de Gipuzkoa, ha visto y oído los precedentes autos seguidos en este Juzgado bajo el número 1/14-4, sobre modificación sustancial de las condiciones de trabajo, actuando de una parte D. asistido por el letrado D. y de otra el graduado social D. en representación de la empresa y la letrada Dª , en representación del Departamento de Economía, Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco.

## ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- El 2 de Enero del 2.014 tuvo entrada en este Juzgado la demanda por la que D. solicitaba que se declarara la nulidad, y subsidiariamente injustificada, la modificación de sus condiciones de trabajo que la empresa realizó el 8 de Enero del 2.014, y en virtud de la cual pasó de prestar sus servicios en el centro de trabajo de

Donostia (Gipuzkoa), a prestar sus servicios en el centro de trabajo de Gasteiz (Araba); a lo que se opone la representación de la empresa al considerar que no se ha producido la modificación de condiciones de trabajo que denuncia D. sino únicamente un cambio de centro de trabajo, de Donostia a Gasteiz, manteniéndole todas las condiciones de trabajo que tenía en el centro de trabajo al que estaba asignado en Donostia.

SEGUNDO.- Presentada la demanda, la misma fue admitida a trámite por decreto de 3 de Enero del 2.014, celebrándose el acto de la vista oral el 23 de Enero del 2.014, en el cual se oyó a las partes; éstas propusieron las pruebas de que intentaron valerse, y una vez admitidas se procedió a su práctica, tras la cual las partes expusieron sus conclusiones definitivas.

TERCERO.- En la tramitación de este procedimiento se han observado todas las prescripciones legales vigentes.

## HECHOS PROBADOS

PRIMERO.- D. viene prestando sus servicios para la empresa desde el 21 de Octubre de 1.985, con la categoría profesional de responsable de servicio, y con un salario mensual de 3.735,76 euros, incluidas las prorratas de las pagas extraordinarias.

SEGUNDO.- D. ha prestado sus servicios en los distintos centros de trabajo de la empresa , si bien desde el 1 de Marzo del 2.013 venía prestando sus servicios en el centro de trabajo que hay en la localidad de Donostia, en la que también tiene su domicilio familiar.

TERCERO.- La empresa se dedica al mantenimiento de los servicios informáticos del Gobierno Vasco, y a atender a los usuarios de estos ordenadores, teniendo una sede central en Araba, y dos delegaciones territoriales en Gipuzkoa y Bizkaia.

CUARTO.- Durante los últimos años, la empresa ha concentrado todos los servidores de los sistemas informáticos del Gobiemo Vasco en su sede central de Araba, quedando fuera de esa sede solo dos servidores, uno en Bizkaia, situado en la calle Gran Via, número 85, de Bilbo, y otro en Gipuzkoa, en la calle Andia de Donostia.

Estos dos servidores están adscritos al servicio denominado "Zuzenean", que es el que utilizan las centralitas telefónicas de estas dos provincias, pero no se hace ningún tipo de gestión desde estos dos servidores.

QUINTO.- El 30 de Septiembre del 2.013, la Dirección de la empresa y D. una reunión en la que la Dirección de la empresa comunicó a D. que a partir del 8 de Enero del

2.014 pasaría al centro de trabajo de Araba, situado en la avenida del Mediterráneo, número 14, de la localidad de Gasteiz.

SEXTO.- El 27 de Noviembre del 2.013, la empresa " entregó una carta a D. en la que le comunicaba que a partir del 8 de Enero del 2.014 pasaría a prestar sus servicios en la sede central de la empresa, situada en la avenida del Mediterráneo, número 14, de la localidad de Gasteiz, estableciéndose un periodo de dos meses, en el que prestaría sus servicios durante tres días en la sede central de Gasteiz, y los dos días restantes en el centro de trabajo de Donostia, abonándole los gastos de transporte en autobús, y considerando el tiempo del viaje como tiempo efectivo de trabajo.

Una copia de esta carta está unida a las actuaciones, dándose aquí por reproducida.

SEPTIMO.- El 29 de Noviembre del 2.013 se celebró una reunión entre la Dirección de la empresa y el comité de empresa, en la que la Dirección de la empresa informó al comité de empresa que el personal que presta sus servicios en las delegaciones del Gobierno Vasco de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia, pasarían a prestar sus servicios en la sede central de la empresa, en la avenida del Mediterráneo, número 14, de la localidad de Gasteiz, a partir del 8 de Enero del 2.014.

OCTAVO.- Desde el 8 de Enero del 2.014, D. presta sus servicios durante tres días a la semana en la sede central de la empresa situada en Gasteiz, y los otros dos días de la semana en el centro de trabajo de Donostia.

La empresa abona D. el importe del viaje en autobús, y considera el tiempo del viaje como tiempo de trabajo.

NOVENO.- D. no es, ni ha sido durante el año anterior a los hechos representante de los trabajadores.

## FUNDAMENTOS JURIDICOS

PRIMERO.- Objeto del debate.

El actor solicita en su demanda que se declare la nulidad, y subsidiariamente injustificada, la modificación de sus condiciones de trabajo que la empresa ealizó el 8 de Enero del 2.014, y en virtud de la cual pasó de prestar sus servicios en el centro de trabajo de Donostia (Gipuzkoa), a prestar sus servicios en la sede central de la empresa, situada en la avenida del Mediterráneo, número 14, de Gasteiz (Araba), pues entiende que este cambio de centro de trabajo supone la modificación sustancial de las condiciones de trabajo que denuncia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren Ofizio Papera

Papel de Oficio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco

Pretensión a la que se opone la representación de la empresa alegando que en este caso no se ha producido la modificación sustancial de las condiciones de trabajo que denuncia el actor, sino solo un cambio de centro de trabajo, como otros que ha sufrido a la largo de su vida profesional en la empresa, es decir se trata de un traslado, desde un centro de trabajo en Donostia, a la sede central de la empresa en Gasteiz, pero no de una modificación sustancial de las condiciones de trabajo del actor.

<u>SEGUNDO</u>.- Examen de la medida adoptada por la empresa el 8 de Enero del 2.014 en relación al actor.

Para centrar la cuestión objeto de debate, debe señalarse que la medida que adoptó la empresa el 8 de Enero del 2.014 consiste en asignar al actor las tareas que venía realizando en la sede central de la empresa, que se encuentra en Gasteiz, manteniéndole todas las condiciones de antigüedad, categoría profesional, salario, jornada y tareas a realizar, y además le abona el importe del billete de autobús entre Donostia y Gasteiz, y considera como tiempo de trabajo el que el actor necesite para realizar el viaje Donostia-Gasteiz, y vuelta, discutiéndose si esta medida es una modificación sustancial de las condiciones de trabajo o un traslado de centro de trabajo.

Este es el punto central de la discusión, ya que el actor ha ejercitado la acción de modificación sustancial de las condiciones de trabajo, como lo indica en el encabezamiento de la demanda, folio 2, y la representación de la empresa mantiene que no se ha producido la modificación sustancial de las condiciones de trabajo que denuncia el actor, sino exclusivamente un traslado de centro de trabajo, en función de las necesidades de la empresa, pasando del centro de trabajo de Donostia, a la sede central de la empresa en Gasteiz, situación que el actor conoce perfectamente, pues a lo largo de su vida profesional en la empresa ha tenido varios traslados, como el propio actor reconoce en el hecho segundo de la demanda.

Para resolver esta cuestión se debe tener en cuenta que la modificación sustancial de las condiciones de trabajo y la movilidad geográfica son dos cosas diferentes, y de hecho el Estatuto de los Trabajadores las regula de manera diferente, en el artículo 40 regula la movilidad geográfica, y en el artículo 41 regula la modificación sustancial de las condiciones de trabajo, si bien el procedimiento para resolver estas dos cuestiones es el mismo, el que regula el artículo 138 de la Ley de la Jurisdicción Social.

Este Juzgado entiende que la diferencia entre las dos acciones que se discuten, es que la acción de movilidad geográfica responde a la pregunta de dónde se prestan los servicios, y la acción de modificación sustancial de las condiciones de trabajo responde a la pregunta de cómo se desarrolla la prestación de servicios del trabajador, y en este caso en la carta que la empresa entregó al actor el 27 de Noviembre del 2.013, folios 19 y 20, lo que se comunica es un cambio de centro de trabajo, pues pasa de un centro de trabajo en Donostia, a un centro de trabajo en Gasteiz, pero aparte de este cambio de centro de

trabajo, el actor no sufre ninguna variación de sus condiciones de trabajo.

Así, el actor realiza en el centro de trabajo de Gasteiz las mismas tareas que realizaba en Donostia, no sufre ninguna variación de antigüedad, categoría profesional o salario, mantiene su jornada de trabajo, y además el tiempo que precisa para realizar el viaje Donostia-Gasteiz y regreso se le computa como tiempo de trabajo, y la empresa "Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A." le abona el importe del billete de autobús entre Donostia y Gasteiz.

Por lo tanto, en este caso no se ha producido una modificación de las condiciones de trabajo del actor, sino un traslado de centro de trabajo, de Donostia a Gasteiz, traslado que no impugna, y lo que impugna el actor es una modificación de sus condiciones de trabajo que no se ha producido, por lo que no cabe sino desestimar la demanda.

Vistos los preceptos legales citados, y todos los demás de pertinente y general aplicación al caso.

## **FALLO**

Que desestimo la demanda, y absuelvo a la empresa "
y al
de sus pedimentos.

Contra esta resolución no cabe la interposición de ningún recurso.

Lo preinserto concuerda bien y fielmente con su original al que me remito, y para que surta los efectos oportunos, expido el presente en DONOSTIA / SAN SEBASTIAN, a seis de febrero de dos mil catorce. Doy fe.

Aurreko testua zeharo bat dator jatorrizkoarekin, eta horri berorri lotzen natzaio. Dagozkion ondoreak izan ditzan, idazki hau egiten dut, DONOSTIA / SAN SEBASTIAN(e)n, bi mila eta hamalau (e)ko otsailaren sei(e)an. Fede ematen dut.